# *Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa*

## *Estadística Extrahospitalaria pública*

# 2001

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA
www.eustat.es

# EMAITZEN ANALISIA

# ANÁLISIS DE RESULTADOS

## INTRODUCCIÓN

El siguiente análisis sobre la Estadística Extrahospitalaria pública tiene por objeto suministrar información sobre la situación de la actividad sanitaria desarrollada en los centros de atención primaria y especializada, practicada en régimen ambulatorio, dentro de la C.A. de Euskadi.

La Estadística Extrahospitalaria pública viene realizándose anualmente desde el año 1985, aunque en el presente informe se ha tomado como referente 1993 por mayor homogeneización de la serie de datos. La Estadística Extrahospitalaria junto a la Estadística Hospitalaria y la Estadística de Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica, reporta una importante base de información para el conocimiento del sector sanitario vasco, tanto en lo que respecta a recursos humanos y materiales, como en actividad asistencial y económica, facilitando con ello las labores de planificación, gestión y coordinación de los servicios sanitarios de la C.A. de Euskadi.

En el sector extrahospitalario público vasco se emplearon en 2001 un total de 6.712 personas, (+0,9% respecto al año 2000), para atender un volumen de consultas que alcanzó los 11,9 millones. Esta cifra supuso un incremento porcentual del 1,4% en lo que a actividad asistencial se refiere.

Además, para cubrir los gastos inherentes a este sector (que representó ya en 2001 un 0,71% del PIB de la C.A. de Euskadi), la sanidad pública vasca destinó 294 millones de euros a los 431 centros del sector extrahospitalario público. Ello supuso un incremento porcentual del gasto total del 5,7% respecto al año precedente.

## SARRERA

Ospitaleez kanpoko estatistika publikoari buruzko azterketa honen helburua da Euskal AE barruan lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko zentroetan, erregimen anbulatorioan, izaten den osasun jarduerari buruzko informazioa ematea.

Ospitaleez Kanpoko Estatistika urtero egiten da 1985. urteaz geroztik. Hala ere, txosten hau egiteko 1993. urtea hartu da erreferentziatzat, datu-serieen homogeneizazio handiagoa egoteko. Ospitale Estatistikarekin eta Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estatistikarekin batera, Ospitaleez Kanpoko Estatistikak informazio garrantzitsua ematen du Euskal AEko osasun-sektorea ezagutzeko, bai giza baliabideei eta baliabide materialei dagokienez, bai laguntza-jarduerei eta jarduera ekonomikoei dagokienez. Horren ondorioz, Euskal AEko osasun-zerbitzuen plangintza, kudeaketa eta koordinazioa errazago egin ahal izango dira.

2001. urtean, Euskadiko ospitaleez kanpoko sektorean 6.712 pertsonek egin zuten lan (2000. urtearen aldean %+0,9), eta 11,9 milioi kontsultei erantzun zieten. Kopuru horrek %1,4ko ehuneko-gorakada ekarri zuen, laguntza-jarduerei dagokienez.

Gainera, sektore horretatik eratorritako gastuei aurre egiteko (2001. urtean jada, Euskal AEko BPGaren %0,71ko gastua egon zen), Euskal AEko osasun publikoak 294 milioi euro erabili zituen ospitaleez kanpoko 431 zentro publikoetan. Gastu horrek aurreko urteko guztizko gastuaren %5,7ko ehuneko-gorakada ekarri zuen.

Evolución del PIB y del gasto total
(Número índice con base en 1993)
Gráfico 1 **Grafikoa**
**BPGaren eta guztizko gastuaren bilakaera**
**(Zenbaki indizea, 1993. urtean oinarrituta)**



Al considerar el período 1993-2001, el gasto en consumo de recursos económicos del sector extrahospitalario (medido en precios corrientes) ha registrado un crecimiento económico del 31,7%.

Si se realiza una comparativa con la evolución del PIB durante estos mismos años, se observa que el gasto en el sector extrahospitalario ha crecido por debajo de lo que lo ha hecho el conjunto de la economía vasca, que durante el mismo periodo de referencia experimentó un crecimiento del 77,8%. Así, el gasto destinado a la sanidad extrahospitalaria pública ha pasado de representar el 0,93% del PIB en 1993, al 0,71% en 2001. Por otra parte, esta cifra se aproxima más a la media observada durante los cuatro o cinco últimos años.

En lo que a la actividad asistencial se refiere, para el mismo grupo de años, el número de consultas externas en centros extrahospitalarios ha aumentado ligeramente, un 2,6%, aunque a un ritmo muy inferior al registrado en los centros hospitalarios, donde la actividad ambulatoria especializada en consultas externas ha experimentado un fuerte crecimiento (25,3%).

Los indicadores de actividad señalan que en el período de referencia 1993-2001, el promedio de veces que cada residente de la C.A. de Euskadi acudió a un médico general (3,96 veces) o a un pediatra (5,86 veces) en el año 2001 fue superior al registrado en 1993, con 3,78 y 4,40 veces respectivamente. Esto indica que se viene produciendo un aumento del consumo de la sanidad pública extrahospitalaria por parte de los habitantes de la C.A. de Euskadi.

1993-2001 aldiari dagokionez, ospitaleez kanpoko sektoreko baliabide ekonomikoak kontsumitzeko gastuek %31,7ko hazkunde ekonomikoa izan zuten (prezio arruntetan neurtuta).

BPGak urte horietan izan zuen bilakaerarekin alderatuta, ospitaleez kanpoko sektoreko gastua Euskal AEko ekonomia osoaren gastuaren azpitik hazi dela ikusten da. Izan ere, erreferentziazko aldi berean %77,8ko hazkundea izan zuen. Horrela, ospitaleez kanpoko osasun publikorako esleitutako gastua, 1993. urtean BPGaren %0,93koa izatetik 2001. urtean %0,71koa izatera pasa da. Bestalde, kopuru hori hurbilago dago azken lau edo bost urteetan izandako batez bestekotik.

Laguntza-jarduerei dagokienez, urte-multzo berean ospitaleez kanpoko zentroetako kanpo-kontsultak pixka bat igo ziren, %2,6 hain zuzen ere. Hala ere, ospitaleetako kanpo-kontsultetan izandako erritmoa baino askoz ere erritmo motelagoan gertatu da hori. Izan ere, ospitaleetan, kanpo-kontsultetako jarduera anbulatorioa asko igo da (%25,3).

Jarduera-adierazleen arabera, betiere 1993-2001 erreferentziazko aldia kontuan hartuta, Euskal AEko biztanleak 2001. urtean gehiagotan joan ziren mediku orokorrarengana (batez beste 3,96 aldiz) edo pediatrarengana (5,86 aldiz), 1993. urtean baino. Izan ere, 1993. urtean, hurrenez hurren 3,78 aldiz eta 4,40 aldiz joan ziren batez beste. Horrek adierazten duenez, Euskal AEko biztanleek ospitaleez kanpoko osasun publikoan egiten duten kontsumoa goraka doa.

**1. TAULA: OSPITALEEZ KANPOKO PUBLIKOA. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA**
TABLA 1. EXTRAHOSPSITALARIA PÚBLICA. EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES VARIABLES

| | 2001 | 2000 | Δ 01/00 | 1993 | Δ 01/93* |
|---|---|---|---|---|---|
| **GASTUA, GUZTIRA (EUROAK, MILAKOETAN)** | | | | | |
| GASTO TOTAL (MILES EUROS) | 293.711 | 277.875 | 5,7 | 222.936 | 3,5 |
| **Gastu arruntak /** Gastos corrientes | 286.924 | 270.432 | 6,1 | 215.200 | 3,7 |
| **Ordainsariak /** Retribuciones | 245.379 | 229.325 | 7,0 | 192.080 | 3,1 |
| **Bestelako gastu arruntak** | | | | | |
| Otros gastos corrientes | 41.546 | 41.107 | 1,1 | 23.120 | 7,6 |
| **Kapital-gastuak /** Gastos de capital | 6.786 | 7.443 | -8,8 | 7.736 | -1,6 |
| **Kostua, biztanleko (euroak)** | | | | | |
| Coste por habitante (euros) | 141 | 134 | 5,2 | 106 | 3,6 |
| **LAGUNTZA-JARDUERA** | | | | | |
| ACTIVIDAD ASISTENCIAL | | | | | |
| **Kontsultak, guztira (milaka)** | | | | | |
| Total de consultas (miles) | 11.871 | 11.708 | 1,4 | 11.570 | 0,3 |
| **Medikuntza orokorreko kontsultak (milaka)** | | | | | |
| Consultas de Medicina General (miles) | 8.242 | 8.120 | 1,5 | 7.946 | 0,5 |
| **Pediatria-kontsultak (milaka)** | | | | | |
| Consultas de Pediatría (miles) | 1.341 | 1.341 | 0,0 | 1.279 | 0,6 |
| **Mediku orokor bakoitzeko kontsultak (batez beste)** | | | | | |
| Consultas por Médico General (promedio) | 6.092 | 6.064 | 0,5 | 6.316 | -0,5 |
| **Pediatra bakoitzeko kontsultak (batez beste)** | | | | | |
| Consultas por Pediatra (promedio) | 4.805 | 4.806 | 0,0 | 4.351 | 1,2 |
| **LANGILEAK, GUZTIRA** | | | | | |
| PERSONAL TOTAL | 6.712 | 6.649 | 0,9 | 6.796 | -0,2 |
| **Mediku orokorrak /** Médicos Generales | 1.353 | 1.339 | 1,0 | 1.258 | 0,9 |
| **Pediatrak /** Pediatras | 279 | 279 | 0,0 | 294 | -0,7 |
| **Beste mediku espezialista batzuk** | | | | | |
| Otros médicos especialistas | 1.001 | 1.006 | -0,5 | 1.021 | -0,2 |

**Iturria/** Fuente**: EUSTAT**
**(*) Urteko batez besteko tasa metatua /** Tasa media anual acumulativa

## CENTROS EXTRAHOSPITALARIOS

La red extrahospitalaria pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi está configurada por 431 centros asistenciales (tres más que en 2000) que se distribuyen territorialmente de la siguiente forma: 75 centros situados en Araba, 230 en Bizkaia (todos los centros nuevos corresponden a este territorio histórico) y 126 en Gipuzkoa.

## OSPITALEEZ KANPOKO ZENTROAK

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleez kanpoko zentroen sarean 431 laguntza-zentro daude (2000. urtean baino hiru gehiago) eta honela daude lurraldeka banatuta: Araban 75 zentro daude, Bizkaian 230 (zentro berri guztiak lurralde honetan daude) eta Gipuzkoan 126.

Distribución de los centros extrahospitalarios por Territorio Histórico. (%) Gráfico **2 Grafikoa** **Ospitaleez kanpoko zentroen banaketa luraldeka. (%)**




Dentro de los centros extrahospitalarios existe una clasificación en función del tipo de servicios que se desarrollan en los mismos. Así, en la C.A. de Euskadi existen 102 Centros de Salud, 28 Ambulatorios, 55 Consultorios,

Ospitaleez kanpoko zentroen baitan, bada egiten diren zerbitzuen araberako sailkapen bat. Horrela, Euskal AEn 102 osasun-zentro, 28 anbulatorio, 55 kontsultategi eta 37 larrialdiko arretako zerbitzu daude. Horiek dira, hain

Centros extrahospitalarios de la C.A. de Euskadi según su clasificación Gráfico **3 Grafikoa** **Euskal AEko ospitaleez kanpoko zentroak, sailkapenaren arabera**



y 37 Servicios de Atención Urgente, que son las cuatro categorías que mayor volumen de actividad asistencial generan. A éstos hay que añadir otros establecimientos de carácter más específico, como son 49 Consultorios de Salud Mental, 118 Centros Periféricos (Casas de médico), 39 Centros Asistenciales Mutuales y 3 centros más que entran dentro de la categoría de Otros centros.

En cuanto a la evolución del número de centros existentes en la C.A. de Euskadi en el período comprendido entre los años 1993 y 2001, cabe destacar que no se ha experimentado gran variación en el cómputo global de centros, con la salvedad de que a partir del año 1999, los denominados Centros de Planificación Familiar dejaron de ser clasificados como centros diferenciados dentro de la Estadística Extrahospitalaria para pasar a ser considerados como un servicio asistencial más integrado dentro de los centros de salud o ambulatorios que correspondían a la zona donde desarrollaban su actividad.

En comparación con el año 2000, las variaciones del número de centros extrahospitalarios públicos han venido determinadas por la apertura de tres nuevos centros en Bizkaia, que corresponden a un nuevo Centro de Salud y dos Consultorios de Salud Mental.

## PERSONAL

En la asistencia extrahospitalaria pública trabajaron en 2001 un total de 6.712 personas, de las cuales casi la totalidad, el 93,2%, lo hizo en centros pertenecientes a Osakidetza, y prácticamente el resto, un 6,8% estaba empleado en Mutuas de Accidente de Trabajo, quedando un inapreciable 0,01% correspondiente a centros dependientes de Ayuntamientos.

En relación a 2000, el sector registró un incremento de la cifra total de personal en torno al 0,9%, si bien, esta cifra no refleja las variaciones que hubo dentro de ese personal, donde las altas en algunos puestos se compensaron con las bajas sucedidas en otros.

Así, por ejemplo en los ambulatorios se produjo un aumento en las plazas de médicos de familia (para cubrir las correspondientes al nuevo Centro de salud de Bilbao o reforzar las existentes en la comarca de Plentzia-Mungia, con población creciente en los últimos años), pero por otro lado se observa un descenso en el número de especialistas debido en gran parte a que plazas donde en 2000 había un especialista y un ayudante, ahora pasan a considerarse un solo equipo y se contabilizan como una única plaza.

Los centros que absorbieron los mayores porcentajes de empleo fueron los Centros de Salud con un 40,4% de todo el personal, seguidos de los Ambulatorios con un 25,1% y a mayor distancia los Servicios de Urgencia (8,8%), Consultorios (7,7%), Centros de Salud Mental (6,9%) y Mutuas de Accidentes de Trabajo (6,8%). El resto de centros acumularon porcentajes inferiores al 5%.

zuzen ere, laguntza-jarduera kopuru handiena sortzen duten lau kategoriak. Horiez gain, bereziagoak diren beste establezimendu batzuk ere badaude, hala nola adimen-osasuneko 49 kontsultategi, 118 zentro periferiko (mediku-etxeak), mutuetako 39 laguntza-zentro, eta «bestelako zentroak» kategorian sartzen diren beste 3 zentro.

Euskal AEn dauden zentroen bilakaerari dagokionez, 1993. eta 2001. urteen artean ez da aldaketa handirik izan zentroen zenbaketa orokorrean. Hala ere, ospitaleez kanpoko estatistikan bada salbuespen bat: 1999. urtetik aurrera, familia-plangintzako zentroak ez ziren zentro bereizitzat hartzen. Aitzitik, zentro horiek beren jarduera egiten den tokietako osasun-zentroetan edo anbulatorioetan sartutako laguntza-zerbitzu izatera pasa ziren.

2000. urtearen aldean, ospitaleez kanpoko zentro publikoen kopurua aldatu egin da, Bizkaian beste hiru zentro ireki baitira. Zentro horiek osasun-zentro bat eta adimen-osasuneko bi kontsultategi izan dira.

## LANGILEAK

2001. urtean, 6.712 langilek egin zuten lan ospitaleez kanpoko laguntza publikoan. Horietatik, gehienek (%93,2) Osakidetzako zentroetan egin zuten lan, gainerakoetatik beste askok lan-istripuen mutualitateetan (%6,8) eta beste kopuru oso txiki batek (%0,01) udalen mende dauden zentroetan.

2000. urtearekin alderatuta, sektore honetako langileen kopuruak gora egin du (%0,9). Hala ere, kopuru horrek ez ditu langileen arloan izandako aldaketak islatzen. Lanpostu batzuetan izandako altak beste batzuetan izandako bajekin konpentsatzen dira.

Esate baterako, anbulatorioetan familia-medikuen plazek gora egin zuten (Bilboko osasun-zentro berriko plazetan edo azken urteotan gorantz doan biztanleria duen Plentzia-Mungia eskualdean dauden plazetan lan egiteko). Hala ere, espezialista-kopuruak behera egin du. Izan ere, 2000. urtean espezialista eta laguntzailea zeuden lanpostuetan, orain talde bakarra eratu da eta talde hori plaza bakartzat hartzen da.

Enpleguaren ehuneko handiena izan zuten zentroak honakoak izan ziren: osasun-zentroak (langileria guztiaren %40,4), anbulatorioak (%25,1), eta urrunago, larrialdietako zentroak (LAZ)(%8,8), kontsultategiak (%7,7), osasun mentaleko zentroak (%6,9) eta lan-istripuen mutualitateak (%6,8). Gainerako zentroek %5 baino ehuneko txikiagoak izan zituzten.




En el período 1993-2001 es de destacar el descenso de personal que se observa en los centros ambulatorios, que han pasado de representar el 35,8% del total de personal de la red extrahospitalaria pública en 1993 a únicamente el 25,1% en 2001. Esta variación, sin embargo, no es un descenso real, sino que responde a una reestructuración del personal, ya que los médicos especialistas de cupo han ido desapareciendo y estas plazas han pasado a depender jerárquicamente de los hospitales.

Por su parte, los centros de salud han visto incrementar en este mismo período el número de empleados en un 28,6%, constituyendo actualmente los centros que concentran el mayor volumen de personal de la red extrahospitalaria pública de la C.A. de Euskadi con 2.712 trabajadores.

Funcionalmente, el 80% del personal contratado en los centros extrahospitalarios de la C.A. de Euskadi es personal sanitario, que se distribuye entre médicos, con 2.633 plazas (49%), A.T.S. y personal de enfermería con 1.933 plazas (40,6%) un 6% serían auxiliares de clínica y el restante 4,4% corresponde a otro personal sanitario. El personal no sanitario representa el restante 20%.

Dado que los servicios de atención primaria constituyen el pilar básico de la sanidad extrahospitalaria, el peso fundamental del personal médico está formado por los médicos generales y los pediatras, que representan el 51,4% y el 10,6% del personal facultativo, respectivamente. El 48,6% restante corresponde a médicos especialistas, entre los cuales, psiquiatras con un 4,9% y traumatólogos con el 4,55% son los que cuentan con la mayor representación.

1993-2001 aldian, zentro anbulatorioetan izan den langileen beherakada aipagarria izan da. Horrela, 1993. urtean ospitaleez kanpoko sare publikoko langile-kopuru osoaren %35,8 izatetik, 2001. urtean %25,1 izatera pasa dira. Hala ere, aldaketa horrek ez du benetako beherakada islatzen. Aitzitik, langileen berregituratzea islatzen du, kupoko mediku espezialistak desagertuz joan baitira, eta plaza horiek hierarkikoki ospitaleen mende egotera pasa baitira.

Bestalde, aldi horretan, osasun-zentroetan %28,6 hazi da langile-kopurua. Osasun-zentroak dira, hain zuzen ere, Euskal AEko ospitaleez kanpoko sare publikoko langile gehien dituzten zentroak, 2.712 langilerekin.

Jardueraren arabera, Euskal AEko ospitaleez kanpoko zentroetan kontratatu dituzten langileen %80 osasun-langileak dira. Osasun-langile horien artean, medikuek 2.633 plaza dituzte (%49), eta OLTek nahiz erizaintzako langileek 1.933 plaza (%40,6), klinika-laguntzaileek plazen %6 dute, eta geratzen den %4,4 bestelako osasun--langileen plazei dagozkie. Osasun-langileak ez direnak gainerako %20 dira.

Lehen mailako arretako zerbitzuak dira ospitaleez kanpoko osasunaren oinarri. Beraz, pertsonal medikua gehienbat mediku orokorrez eta pediatrez osatuta dago (hurrenez hurren, %51,4 eta %10,6). Gainerako %48,6 mediku espezialistak dira. Horietatik, ordezkari gehien dituzten espezialitateak psikiatria (%4,9) eta traumatologia (%4,55) dira.

Por otra parte, la presencia de la mujer dentro de la red extrahospitalaria pública de la C.A. de Euskadi continúa su tendencia ascendente de los últimos años, constituyendo en 2001 un 64,7% del personal empleado en este sector, y no sólo dentro de las categorías donde tradicionalmente la presencia de la mujer ha sido mayoritaria, tales como las que se agrupan en la categoría "personal de enfermería" (A.T.S./D.U.E, fisioterapeutas y matronas), sino también entre el personal facultativo, donde las mujeres representan actualmente el 43,4% de las plazas de médico, con 1.142 facultativos. En el período 1993-2001, este número se ha incrementado más de un 30%.

Bestalde, gero eta emakume gehiago daude Euskal AEko ospitaleez kanpoko sare publikoan. Beraz, azken urteetako goranzko joerak bere horretan dirau. 2001. urtean, sektorean lanean zeudenen %64,7 emakumeak ziren. Gainera, joera hori ez da soilik tradizioz emakumezkoak gehiengoa osatzen duten arloetan gertatzen, hau da, «erizaintzako langileak» deritzon taldean gertatzen (OLT/EUD, fisioterapeutak eta emaginak). Mediku fakultatiboen artean ere gauza bera gertatzen da; gaur egun, mediku-plazetako %43,4 emakumeak dira, eta guztira 1.142 emakume mediku daude. 1993-2001 aldian, kopuru hori %30 baino gehiago igo da.

## GASTO Y FINANCIACIÓN

El **gasto total** en la red extrahospitalaria pública durante 2001 ascendió a algo más de 294 millones de euros ( un 5,7% superior al de 2000), de los cuales el 97,6%, es decir 287 millones, correspondieron a los denominados gastos corrientes (gastos de personal, compras, servicios exteriores, etc.), y el restante 2,4%, se destinó a gasto en inversión.

Dentro del gasto corriente, los gastos de personal fueron, un año más, la partida de gasto más importante, representando el 85,4%, aunque, si observamos su evolución durante los últimos años (1993-2001), el gasto de personal ha descendido ligeramente, un 1,2% (precios constantes de 1993). Por su parte, la partida "otros gastos corrientes" alcanzó en 2001 el 14,1% del gasto total, siendo la que ha experimentado un mayor crecimiento durante el período 1993-2001 con un incremento del 39%.

Con todo ello, sin embargo, si se observa la estructura del gasto total en conjunto, vemos que su distribución no ha registrado importantes alteraciones en el período 1993-2001.

## GASTUA ETA FINANTZAKETA

2001. urtean, ospitaleez kanpoko sare publikoko **guztizko gastua** 294 milioi euro baino pixka bat gehiagokoa izan zen (2000ko gastua baino %5,7 handiagoa). Gastu horretatik %97,6 (287 milioi) gastu arruntak deritzon multzokoa izan zen (pertsonal-gastuak, erosketak, kanpo--zerbitzuak eta abar). Gainerako %2,4 inbertsio-gastuetan erabili zen.

Gastu arruntetatik, berriz ere pertsonal-gastuak izan ziren gasturik handieneko (%85,4) partida. Hala ere, azken urteotako (1993-2001) pertsonal-gastuen bilakaerari begiratuz gero, pixka bat (%1,2) behera egin duela ikusten da (1993ko prezio finkoak). Bestalde, «bestelako gastu arruntak» partida gastu osoaren %14,1 izatera iritsi zen 2001. urtean. Hain zuzen ere, partida hori izan da 1993-2001 aldian gorakada handiena (%39) izan duena.

Nolanahi ere, guztizko gastuaren egitura osoari so eginez gero, ikusten da 1993-2001 aldian gastuen banaketak ez duela aldaketa garrantzitsurik izan.

Evolución del gasto total (precios constantes). Período 1993-2001 (Miles de euros) — Gráfico 5 Grafikoa — **Guztizko gastuaren bilakaera (prezio finkoak) 1993-2001 aldia (mila euro)**



Por otro lado, la asistencia extrahospitalaria se concretó en un **gasto por habitante** de 141 euros, cifra un 5,2% superior a la del año 2000. En el período de años 1993-2001, el gasto por habitante creció un 33% medido en precios corrientes (2,9% en precios constantes), lo que muestra que en estos últimos años la evolución del gasto extrahospitalario por habitante se ha caracterizado por un crecimiento lento pero sostenido.

Bestalde, ospitaleez kanpoko laguntzaren biztanle bakoitzeko gastua 141 eurokoa izan zen. Zenbateko hori 2000. urtekoa baino %5,2 handiagoa izan zen. 1993-2001 aldian, **biztanle bakoitzeko gastua** batez beste %33 hazi zen prezio arruntetan (%2,9 prezio finkoetan). Horrek erakusten duenez, azken urteotako biztanleko ospitaleez kanpoko gastuak gora egin du, poliki-poliki baina etengabe.

Evolución del gasto total por habitante en euros. Período 1993-2001 Gráfico 6 **Grafikoa** **Biztanleko guztizko gastuaren bilakaera, eurotan. 1993-2001 aldia**




En cuanto a la partidas de **ingresos**, el Departamento de Sanidad es la principal fuente de financiación de la sanidad pública extrahospitalaria, con aportaciones que suponen más del 90% de la financiación del sector. El resto proviene de las Mutuas de Accidentes de Trabajo (7,57%) y en menor medida, de algunos Ayuntamientos, Entidades aseguradoras privadas, particulares, Diputaciones forales, etc.

**Diru-sarreren** partiden harira, Osasun Saila da ospitaleez kanpoko osasun publikoaren finantzaketa-iturri nagusia. Izan ere, Osasun Sailak sektoreko finantziazioaren %90 baino gehiagoko ekarpenak egiten ditu. Honakoek egiten dituzte gainerako ekarpenak: lan-istripuen mutualitateek (%7,57), eta, neurri txikiagoan, udalek, erakunde aseguratzaile pribatuek, partikularrek, foru aldundiek…

## ACTIVIDAD ASISTENCIAL. INDICADORES

El número total de **consultas** atendidas en los centros extrahospitalarios públicos durante el año 2001 fue de 11,9 millones, cifra un 1,4% superior a la del año 2000. Este leve aumento de la actividad asistencial quedó asimismo reflejado tanto en atención primaria, con 8,2 millones de consultas en medicina general (+1,5%), como en pediatría, con 1,3 millones de consultas (+0,0% en relación al año precedente).

Estos dos grupos (medicina general y pediatría) supusieron el 80,7% del total de consultas atendidas en la C.A. de Euskadi en 2001. Del 19,3% restante, las especialidades con mayor volumen de actividad fueron traumatología con 457.694 consultas (3,8%), tocoginecología con 322.581 (2,7%) y psiquiatría con 257.966 (2,2%). El resto de las especialidades registraron porcentajes inferiores al 2%.

## LAGUNTZA-JARDUERA. ADIERAZLEAK

2001. urtean, 11,9 milioi **kontsulta** izan ziren ospitaleez kanpoko zentro publikoetan. Kopuru hori 2000. urtekoa baino %1,4 handiagoa da. Laguntza-jardueran izandako igoera hori, besteak beste, lehen mailako arretan (medikuntza orokorreko 8,2 milioi kontsulta izan ziren, hots, %+1,5) eta pediatrian (1,3 milioi kontsulta izan ziren, hots, aurreko urtean baino %+0,0) islatu zen.

Bi talde horiek (medikuntza orokorra eta pediatria) Euskal AEn 2001. urtean egindako kontsulta guztien %80,7 osatu zuten. Kontsulten gainerako %19,3tik, jarduera--kopuru handiena honako espezialitateek izan zuten: traumatologiak, 457.694 kontsulta (%3,8); tokoginekologiak, 322.581 kontsulta (%2,7); eta psikiatriak, 257.966 kon-tsulta (%2,2). Gainerako espezialitateek %2 baino ehuneko txikiagoak izan zituzten.

Considerando la evolución a lo largo del período 1993-2001, el número de consultas médicas muestra de nuevo un ligero incremento del 2,6%, registrándose el valor máximo de la serie en el año 2001, con un total de 11,9 millones de consultas.

1993-2001 aldiko bilakaera kontuan hartuta, mediku-kontsulten kopuruak berriz ere gora egin du pixka bat, %2,6 hain zuzen. 2001. urtean iritsi da balio gorenera, 11,9 milioi kontsultekin.

Evolución del número total de consultas en centros extrahospitalarios públicos. Período 1993-2001 Gráfico **7** **Grafikoa** **Ospitaleez kanpoko zentro publikoetako kontsulta guztien bilakaera. 1993-2001 aldia**




Asimismo, el promedio de consultas obtenido para este periodo, 11,7 millones, y la desviación típica, 0,12 millones, llevan a un coeficiente de variación mínimo (0,001) por lo que este promedio es muy representativo de los valores de la serie, es decir, la cifra global de consultas externas no ha experimentado cambios notables en estos años.

Orobat, aldi honetan lortutako kontsulten batez bestekoak (11, 7 milioi) eta ohiko desbideraketak (0,12 milioi) gutxieneko aldakuntza-koefizientea dute (0,001). Beraz, batez besteko hori oso egokia da serieko balioak ordezkatzeko, hau da, kanpo-kontsulten kopuru orokorrak ez du aldaketa garrantzitsurik izan azken urteotan.

En el ámbito de la **atención primaria**, el número de consultas en el período 1993-2001 ha experimentado un crecimiento del 3,8%, siendo éste incremento del 4,8% para consultas de pediatría y del 3,73% para medicina general. Evolución contraria ha tenido la **atención especializada**, donde se ha reducido el número total de consultas en estos años (-2,4%).

**Lehen mailako arretari** dagokionez, 1993-2001 aldian kontsultek %3,8 egin dute gora. Bestalde, pediatriako kontsultak %4,8 igo dira eta medikuntza orokorrekoak %3,73. **Arreta espezializatuko** kontsultek aurkako bilakaera izan dute. Urte hauetan, kontsulten kopurua murriztu egin da (%-2,4).

Al comparar esta evolución con la de los centros hospitalarios, donde el aumento en el número de consultas para estos años es muy significativo (+24%), se aprecia cómo la atención especializada ejercida hasta ahora en los centros extrahospitalarios públicos se está desviando hacia los hospitales. Esto no queda patente en todas las especialidades, puesto que en algunas como Urología, Endocrinología, Rehabilitación o Psiquiatría, se ha apreciado un aumento de la actividad asistencial extrahospitalaria en el período 1993-2001.

Bilakaera hori eta ospitaleetakoa alderatzen baditugu, urte hauetako ospitaleetako kontsulta-kopurua oso garrantzitsua da (%+24). Beraz, ospitaleez kanpoko zentro publikoetan egiten zen arreta espezializatua ospitaleetara doala ikusten da. Hori ez da espezialitate guztietan gertatzen. Izan ere, batzuetan, hala nola urologian, endokrinologian, errehabilitazioan edo psikiatrian, ospitaleez kanpoko laguntza-jardueran gorakada sumatu da 1993-2001 aldian.

A lo largo de 2001 cada residente de la C.A. de Euskadi acudió una media de 5,7 veces a la consulta de un médico, siendo además esta cifra el máximo histórico de la serie 1993-2001. Este promedio es ligeramente superior en el caso de la especialidad de pediatría, donde cada

2001. urtean, Euskal AEko biztanle bakoitza batez beste 5,7 aldiz joan zen medikuaren kontsultara. Kopuru hori 1993-2001 aldiko gehieneko historikoa da. Batez besteko hori pixka bat handiagoa da pediatria espezialitatean. Izan ere, 14 urtez beherako bakoitza 5,9 aldiz joan zen

Evolución del número de consultas por habitante en centros extrahospitalarios públicos. Período 1993-2001

Gráfico **8** **Grafikoa**

**Ospitaleez kanpoko zentro publikoetako kontsulten bilakaera biztanleko. 1993-2001 aldia**




menor de 14 años acudió 5,9 veces al pediatra en 2001, y sin embargo inferior en el caso de médicos de familia con una media de 4 visitas por persona.

El número de consultas atendidas por facultativo en el año 2001 fue de 4.589, cifra aun mayor cuando consideramos únicamente a los médicos de medicina general, los cuales, entre todos los facultativos, fueron los que como promedio pasaron más consultas con una media de 6.092 consultas a lo largo de 2001. Esta cifra supone un aumento del 4,6% respecto al año 2000.

pediatrarengana 2001. urtean. Hala ere, familia-medikuen kopurua txikiagoa da, pertsona bakoitzak 4 bisita egin baitizkio aldi horretan.

Fakultatiboek 4.589 kontsulta izan zituzten 2001. urtean. Kopuru hori are handiagoa da, medikuntza orokorreko medikuak baino ez ditugunean kontuan hartzen. Izan ere, mediku orokorrek batez beste 6.092 kontsulta izan dituzten 2001. urtean. 2000. urtearekin alderatuta, kopuru horretan %4,6ko igoera izan da.

Evolución del número de consultas anuales por facultativo. Periodo 1993-2001

Gráfico **9** **Grafikoa**

**Kontsulta-kopuruaren bilakaera, fakultatibo bakoitzeko. 1993-2001 aldia**



Entre las especialidades, son pediatría con 4.805 consultas anuales, traumatología con 3.814, dermatología con 3.885 y ginecología con un promedio de 3.442 consultas anuales, las que presentan mayores valores para este ratio.

Otro indicador relevante para medir la carga de trabajo de los facultativos de la C.A. de Euskadi es la relación existente entre el número de habitantes y el de facultativos. Así, en 2001, en la sanidad extrahospitalaria pública existía un médico por cada 791 habitantes. Esta cifra es notablemente superior si se considera únicamente la atención primaria, donde cada generalista atendió a 1.539 habitantes y cada pediatra a 819 niños/as.

Espezialitateen artean, honakoek izan zituzten ratio honetako balio handienak: pediatriak (urteko 4.805 kontsulta), traumatologiak (urteko 3.814 kontsulta), dermatologiak (urteko 3.885 kontsulta) eta ginekologiak (urteko 3.442 kontsulta).

Euskal AEko fakultatiboek duten laneko karga neurtzeko beste adierazle garrantzitsu bat da biztanle-kopuruaren eta fakultatibo-kopuruaren artean dagoen erlazioa. 2001. urtean, ospitaleez kanpoko osasun publikoan mediku bat zegoen 791 biztanleko. Kopuru hori askoz handiagoa da lehen mailako arreta kontuan hartzen bada. Mediku orokor bakoitzak 1.539 biztanleri eman zien arreta, eta pediatra bakoitzak 819 haurri.

Evolución del número de habitantes por facultativo. Período 1993-2001 Gráfico **10** **Grafikoa** **Biztanle-kopuruaren bilakaera, fakultatibo bakoitzeko. 1993-2001 aldia**




En el período 1993-2001 el número de habitantes por facultativo en **atención primaria** ha seguido una tendencia decreciente, sin embargo en **atención especializada** el comportamiento es desigual. Existen algunas especialidades, como ginecología, estomatología o rehabilitación en las que se observa una tendencia al descenso en el número de habitantes por facultativo, pero en general, la tendencia es desigual.

**Lehen mailako arretari** dagokionez, 1993-2001 aldian fakultatibo bakoitzak izandako biztanle-kopuruak beheranzko joera izaten jarraitu du. Hala ere, **arreta espezializatuaren** arloan, joera bestelakoa izan da. Espezialitate batzuek, hala nola ginekologiak, estomatologiak edo errehabilitazioak beheranzko joera izan dute fakultatibo bakoitzeko biztanle kopuruari dagokionez. Nolanahi ere, oro har, joera ezberdinak daude.